



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko martxoaren 1a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori hori 2010eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarria aldatzeko zuzenketa.

Edukia: Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeko 68.3.a) artikulua aldatuko da, eta honelaxe idatzita geratuko da:

“3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berak edo bere sozietate publikoen bidez obrak egin ahal izateko, hainbat baldintza aurretiazko ezarriko dira, hartzaileek bete beharrekoak eta erregelamendu bidez garatzekoak, honako oinarri hauetan oin hartuta:

a) Dagokien finantzaketa zatia eta, kasua bada, egiten diren likidazioak aldeztu aurretik egitea.

Hala ere, foru lege honetako 71.2.2.d) artikuluko herrilurretako nahiz gisako lursailtako barne banaketako obren kasuan, onuradunek obra horien esleipen-zenbatekoaren 100eko 50 jarri behar dute obrak hasi aurretik, foru lege honetako 73.4 artikuluaarekin bat, edota, bestela, zenbateko bereko abal solidario bat, Espainian eragiketarako egiteko baimena duen banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba edo elkarrekiko bermerako sozietate batek lehenbiziko errekerimendua egindakoan

exekutatzen modukoa. Abala aurkeztea hautatuz gero, onuradunek dagokien zenbatekoa ordaindu behar dute obra-ziurtagiri bakoitzean, ziurtatutako epea amaitu eta hirurogei egun pasa aurretik”.

Zioak: Asmoa da udalei eta horiei parekatutako entitateei erraztea, funtsik badute, ekarpenak egin ditzaten hasierako eta obrak kontratatu aurreko finantzaketan, eta, hasieran funtsik ez badute, obrek irauten duten bitartean aukera izan dezaten, ziurtagiriak eman ahala, ekarpenak egiteko. Aldi berean, abala eskatzen den kasuetan, nahi dena da Administrazioari edo sozietate publiko kontratatzaileari ziurtatzea ekarpen horiek egiten direla aurreikusitako datetan, halako moduz non, hala ez bada egiten, berme duten abala exekutatu egiten den.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu bakarrean, lehenbiziko epigrafea, berria, gehitzea. Testu hau izanen du:

«Bat. Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen 51.2 artikulua aldatuko da, eta honelaxe idatzita geratuko da:

“51.2 artikulua. Instalazio horietarako laguntza publikoak eskuratzeko, instalaziook oinarritako ureztatze-azaleraren adinakoak edo handiagoak izan behar dute. Irizpide hori ez da aplikatuko ureztaketarako ezarritako azalera oinarritzailearen neurria lortzerik ez duten finketan, bai topografi edo isolamendu arazoengatik bai ageriko ezintasun teknikoengatik.”»

Zioak: Asmoa da ureztatze-unitate "handi" batean jabe bat baldin badago ekipatu nahi duena, izan dezala horretarako aukera; betiere, 5

Ha edo gehiago baldin baditu (jarduketa-guneko ureztalurrak ustiatzeko oinarrizko azaleraren beheitiko muga). Era horretan, koherentea da lege bereko 55. artikuluekin. Artikulu horretan, 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan aipatzen dena da "eskualde horretarako zehaztu den ureztatze unitatearen tamaina baino txikiagorik ez badute"; eta horrek ez du esan nahi ureztatze-unitate bat osatu behar dutenik.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu bakarrean, epigrafe berri bat, bigarrena izanen dena, gehitzea. Testu hau izanen du:

«Bi. Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen 52.4 artikulua aldatuko da, eta honelaxe idatzita geratuko da:

“52.4 artikulua. Ureztatze-unitate berean ura lurzatian aplikatzeko sistema bakarra erabiltzen ahalko da. Aukeratutako sistema prestatuko da laboreetarako hobekien den moduan, arrazoi agromikoak eta kostua kontuan harturik. Lurzatian ura aplikatzeko sistemek, bakoitzak bere aldetik, oinarrizko ureztatze-unitatearen tamaina baino handiagoa badute, aurreko irizpide orokorretik salbuetsita egonen dira. Foru lege honetan aurreikusitako dirulaguntzak aplikatuko zaizkie tamaina hori gainditzen duten ureztatze-sistemari edo ureztatze-sistemei”».

Zioak: Aldaketa horrekin nahi dena da ureztatze-unitatearen kontzeptua argitu; hain zuzen ere, unitate berean ureztatze sistema desberdinak dauden kasuetarako. Logikoa da, batetik, ureztatze-unitate teoriko baten barruan ureztatze-sistema bat baino gehiago badaude iristen ez direnak, zein bere aldetik, ureztalurrak ustiatzeko oinarrizko azaleraren beheitiko mugara (edo, bestela esanda, oinarrizko ureztatze-azalerara), ureztatze-unitate hori ez izatea lortu nahi dena Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen 51.1 artikuluko definizioarekin. Hala ere, sistema horietako bakoitzak hartzen badu, gutxien ere, ureztalurrak ustiatzeko oinarrizko azaleraren beheitiko muga lortzen da, bai, 51.1 artikuluan aipatzen duena: "Ureztatze-unitatea lurzatika antolaturik dauden ureztatze instalazioen diseinu zuzena ahalbidetzen duen azalera da, eta ekintza-eremua ureztatuz ustiatzeko oinarrizko azaleraren beheitiko muga baino balio handiagoa edo berbera du. Halaber, inbertsioaren eraginkortasun oro-

korra bermatzen du eta ustiategien emaitza ekonomikoak errentagarri egiten ditu".

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu bakarrean, epigrafe berri bat, hirugarrena izanen dena, gehitzea. Testu hau izanen du:

«Hiru. Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen 71.2 artikuluari f) letra berria gehituko zaio, eta honela idatzita geratuko da:

"71.2.f) artikulua. Herrilurretan egindako lurralde-hobekuntzak: Nekazaritza-azpiegituren jarduketarekin batera, herrilurrak berrantolatze eta hobetzeko prozesuaren barruan egiten diren inbertsio oro, herrilurretako laborantza-loteak hobetzea helburu. Kontzeptu horren barruan sartuko dira laborantza-lote berrietan mugariak jartzeko lanak, drainatze-obrak eta laborantza-finken lurralde-hobekuntzat jotzen den beste edozein inbertsio. Edonola ere, obra horiek kontratatuta egon beharko dute ureztaketa abiatzeko deklarazioa egin eta hiru urteko epea amaitu aurretik”».

Zioak: Toki entitateek sarritan egin behar izaten dituzte horrelako lanak nekazaritza-azpiegituren jarduketaren ondorengo lehenbiziko urteetan. Oraingo arauen markoan, inbertsio mota hori diruz laguntzeko modukotzat jotzen da soilik ekimen pribatuak gauzatu eta sartuta badago ustiatketen eraginkortasuna hobetzeko laguntzak jaso ditzaketan hobetze planetan. Toki entitateak kanpoan gelditzen dira.

Hala ere, inbertsio mota horiek, sarritan, herrilurren adjudikazio-hartzaile izanen direnek egin beharrean, toki entitateek beraiek nahiago izaten dituzte egin, herrilurren adjudikazio-hartzaileekiko negoziaketak ez daitezen hain konplexuak gerta adjudikazio-epetegi dagokienez –adjudikazio-hartzaileek adjudikazio-epe luzeagoak eskatzen dituzte inbertsioak amortizatzeko– edo errentamendukanonaren deskontuaren negoziatioari dagokienez –inbertsioa partikularrak egiten duenean, inbertsio horren deskontua eskatzen du–. Obra mota hori 71. artikuluko obra-sailkapenean sartuta, eta legeko 73. artikuluan beste idatz-zati bat sartzeko proposatuta –aurrerago egiten dugu proposamen hori–, bidea jartzen da Nafarroako Gobernuak toki entitateei laguntza eman diezaien obra horiek entitateek egin eta finantzatzeko.

5. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu bakarrean, epigrafe berri bat, laugarrena izanen dena, gehitzea. Testu hau izanen du:

«Lau. Nekazaritzako azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen 73.4 artikulua aldatu eta honelaxe idatzita geratuko da:

“73.4 artikulua. Foru lege honetako 71.2.2. artikulua d) letran aipatzen dituen obrak, herrilurretako barne banaketari buruzkoak, finantzatzeko, baldintza ezinbestekoa izanen da barne banaketa hori presiopeko sareen bidez egitea, eta hartara, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gehienez ehuneko 75 finantzatuko du, eta kasuko toki entitateak edo eite berekoak gainerakoa, gainerako hori kalkulaturik egoeraren arabera finkatzen ahal diren erreferentziako kostuen gainean. Horrez gain, toki entitateak hamabost urtez eutsi beharko dio bere hartan loteen tamainari; ez da zilegi izanen tamaina hori oinarritzko ureztatzeazalera baino txikiagoa izatea, eta adjudikaziorako baldintzak foru lege honetako 42.5 artikuluan esaten denaren arabera izanen dira. Ehuneko 75eko gehieneko dirulaguntza hartzeko baldintzak erregelamendu bidez ezarriko dira.

100eko 50eko oinarritzko dirulaguntza Administrazioak jarriko du obren exekuzioa gauzatzen den bitartean. 100eko 25eko dirulaguntza osagarria lortzeko baldintzak erregelamenduz garatuko dira; oinarria izanen da saritzea herrilurren adjudikazio-hartzaile direnek Nafarroako Ustiatgien Erregistroaren arabera dituzten ezaugarriak, eta saritzea, halaber, zer prestakuntza duten ureztatzearekin zerikusia duten gaietan eta zer kontrol beren urkontsumoen gainean. Behin egiaztapena eginda, erregelamenduz ezarritako baldintzei jarraituz, % 25 hori ordainduko da”».

Zioak: Artikulu honen lehenengo aldaketarekin, argitu nahi da, aurreko testuaren aldean, finantzaketaren guztizkoa bi tartetan banatuko dela: bate-tik, Administrazioak obrak egiten diren bitartean ordainduko duen % 50a, eta bestetik, balizko % 25 gehigarria, zeina erregelamendu bidez garatu beharrekoak diren baina legegintza-teknika hobe

batekin legean bertan jaso beharko liratekeen iriz-pide jakin batzuen arabera ezarriko baita.

6. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu bakarrean, epigrafe berri bat, bosgarrena izanen dena, gehitzea. Testu hau izanen du:

“Bost. Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen 73. artikuluari seigarren idatz-zatia gehituko zaio, honako testuarekin:

“73.6 artikulua. Foru lege honetako 71.2.20 artikuluko f) letran aipatzen diren obrak toki entitateek sustatu eta eginen dituzte, eta Nafarroako Gobernuak, gehienez ere, 100eko 40ko dirulaguntza emanen die. Gehieneko dirulaguntza hori eskuratzeko baldintzak erregelamendu bidez garatuko dira”.

Zioak: Artikulu horren bigarren aldaketarekin, diruz laguntzekoak direnen artean sartu nahi dira gisa horretako inbertsioak, zeinek gaur egun ez baitute inongo babesik. Toki entitateek, ordea, maiz haiek egitea planteatzen dute, beren herrilurak berrantolatzeke eta haiek modu integralean hobetzeko, azpiegituretan jarduteko aldeko esparrua aprobetxatuz. Kontua da, halaber, eman beharreko gehieneko diru-laguntzaren mugak zehaztea.

7. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Artikulu bakarraren izenburuaren edukia aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“Artikulu bakarra. Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen aldaketa”.

Zioak: Artikulu bakarrari izenburua jartzea eta, hala, hurrengo, epigrafetan jartzea foru lege honek aldatu behar dituen foru legeko artikulua.